

Iraunkortasun Plana 2016

Itxiera Txostena



Legezko oharra	3
Korporazioaren erantzukizunari buruzko gure ikuspegia eta Plan hau prestatzea	4
Interesdunen itzaropenak eta Planari dagozkion ekintzak	7
● 1. programa: gobernemendua	7
● 2. programa: giza eskubideak	10
● 3. programa: lan-praktikak	12
● 4. programa: segurtasuna	17
● 5. programa: ingurumena	24
● 6. programa: jarduteko bidezko praktikak: ustelkeriaren kontrakoa eta etikoa	32
● 7. programa: jarduteko bidezko praktikak: balioaren katea	34
● 8. programa: partaidetza aktiboa eta erkidegoaren garapena	36
Plana eguneratzeko prozesua	53
Ekintzen aurkibidea	54

Legezko oharra

Iraunkortasun Plan honek ekintza multzoa jasotzen du eta, zati batean edo oso-osorik, legeak eskatzen duena baino urrunago doa. Nolanahi ere, garapen iraunkorra lortzen laguntzera bideratuak daude. Repsol taldeko enpresa partaideek horiei guztiei aurre egin eta guztiak betetzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, betetzea aldatu, atzeratu edo deuseztatzeko ahalmena gordetzen dute, legezko erantzukizunik izan gabe, nahiz eta kasu horietan jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartu.

© PETRONOR, S.A. 2016: eskubide guztiak gordeak. Agiri hau eskusiboki Petronor, S.A.ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean kopiatzea utziko da, bakarrik merkataritza helbururik gabe hedatzeko bada.

Korporazioaren erantzukizunari buruzko gure ikuspegia eta Plana prestatzea

Garapen iraunkorra egun Nazio Batuek 2030eko Agendan kokatzen dute eta 17 helburu orokor ditu. Aurrekoari eutsiz, politika, gizarte eta ekonomia eragileek partekatutako erantzukizuna da eta ekintza erabakigarria eskatzen du.

Garapenean laguntzen dugu, energiaren hornidura ziurtatzen baitugu eta hori ezinbestekoa da pertsonen oinarritzko eskubideak gauzatu ahal izateko. Xede horrez, legeak eta araudiak betetzeaz gain, nazioarteko estandar aipagarriak bete nahi ditugu, besteak beste, enpresa multinazionalerako ELGAREN gidalerroak, enpresa eta giza eskubideei buruzko NBERen printzipio gidariak eta ISO 26000: Erantzukizun Sozialerako Gida nazioarteko araua. Beraz, erakundeek erabakiak hartzeko prozesuetan, giza eskubideekin eta ingurumenarekin zerikusia duten interesdunen kezkek eta itxaropenak kontuan hartu behar dituzte. Hala, modu proaktiboan balio katean zehar izan daitezkeen inpaktu negatiboak identifikatu, arindu eta, bidezkoa bada, orekatuko dira.


Honako gaien inguruan interesdunek dituzten kezkek eta itxaropenak identifikatu ditugu: gobernamentua, giza eskubideak errespetatzea, segurtasuna eta bestelako lan jardunak, ingurumena, balio katean zehar inpaktuak kudeatzea, ustelkeriaren kontrako jarduerak, produktuen kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eragiten dizkieten alderdiak eta tokiko erkidegoekin konpromisoa.

Orokorrean itxaropenak identifikatzeko nazioarteko estandarrak aztertu dira, gaur egun enpresa multinazionalen onargarria den portaerari buruz oso nazioarteko adostasun zabala baitute. Horrez gain, ad hoc azterlanak egiten ditugu herrialdean eta tokian interesdunen itxaropen eta kezka bereziak identifikatzeko.

Analisi eta bateratze lanaren ondoren, emaitzak Iraunkortasunari buruzko Munduko Batzordean berraztertu dira, gure erakundearen barruko korporazioen unitate eta negozio desberdinetako zuzendari ordezkariak kide baitira.

Jarduera hau urtero errepikatzen da eta legez nahiz sistematikoki gure erabakitze prozesuetan interesdunen itxaropenak eta kezkek jasotzen ditu. Ikaste prozesu baliotsua da eta, horri esker, arriskua arintzeko sistemak geroz eta sofistikatuagoak dira eta, beraz, gure erakundea garapen iraunkorrerantz bideratzen laguntzen dute.

KONPAINIAREN ERABAKITZE PROZESUETAN INTERESDUN ITXAROPENAK SARTZEA



Iraunkortasun Plan hau analisiaren emaitza da. Agiri publikoa da. Betetze-maila urtero ebaluatuko da eta urtero jarraipen txostenaren bitartez gizarteari jakinaraziko zaio.

Repsolen Iraunkortasunari buruzko Planak garapen iraunkorrari gure ekarpena dira eta konpainiaren barruan hiru mailatan egiten dira: munduan, herrialdean eta operazio zentroan.

Planak 38 ekintza zehatz ditu, epe laburrera burutu beharrekoak, eta inplementazio adierazleak erantsi zaizkio. Horiek guztiak aurreko taulan deskribatutako 10 programetatik 8tan multzokatzen dira, ISO 26000: Erantzukizun Sozialaren Gida Nazioarteko Arauak deskribatutako korporazioaren erantzukizunari dagozkion oinarritzko jakintzagaietan funtsatuta. Izan ere, jakintzagai horietan edozein enpresak eragin etikoak eta ingurumenari nahiz gizarteari buruzkoa sortzeko ahalmen handiena du.

IRAUNKORTASUN PLANAREN EKINTZAK JARDUERA PROGRAMEN ARABERA BANATZEA

Programa	Ekintza kopurua
Gobernamendua	2
Giza eskubideak	1
Lan jardunak	4
Segurtasuna	6
Ingurumena	7
Jarduteko bidezko praktikak: Ustelkeriaren aurkakoak eta etikoak	1
Jarduteko bidezko praktikak: balio kaltea	1
Partaidetza aktiboa eta erkidegoaren garapena	16

Programen arabera, partaidetza aktibo eta erkidegoaren garapenari buruzkoak batu ditu ekintza gehienak eta atzetik ingurumen eta segurtasunaren ingurukoak doaz.

Planak dituen ekintzen % 45 Repsolen lanean diharduten pertsonen ordainsari sistema aldakorrek ere erlazionatzen da. Nolanahi ere, hori garapen iraunkorrari ekarpena eraginkortasunez gehienera iristeko konpainiaren konpromiso eztabaidaezina da.

Interesdunen itxaropenak eta Planari dagozkion ekintzak

1. programa

Gobernamendua

Erakundearen gobernamendua sistema bat da eta, horri esker, helburuak lortzeko erabakiak hartu eta inplementatzen dira. Beraz, korporazioaren erantzukizun printzipioak bateratu eta horiek praktikan jar daitezten giroa eta kultura sortzeko orduan, elementu erabakigarria da.

Besteak beste, hurrengo gaiak lantzen ditu: konpainiaren gobernu organo gorenekin zerikusiak, finantza, natur eta giza baliabideen erabilera eraginkorra, gardentasuna eta kontuak ematea, konpainian legea eta barne araudia betetzea. Hori guztia erakundearen buruek ahalik eta gehien inplikaturik eta konprometituz lortzen da.

Gobernamenduaren eremuan interesdunen itxaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itxaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, Gobernamenduaren programan sartutako ekintzei buruzko informazio berezia, alfabetoaren arabera sailkatua.

EKINTZA	Akordioetara iristeko elkarrizketa prozesuak adostea.
DESKRIBAPENA	Metodologia bat antolatuko dugu Aholkulariaren Panel Publikoetan (APP) akordioak bateratzeko, elkarrizketarako eztabaida gune iraunkorrak lortzeko eta akordioez baliatzeko Petronorrek eta talde interesgarrien ordezkariak industriagunearen gintzan sentiberak diren alderdiei buruz iritzia eta informazioa truka ditzaten. Eztabaida arloetan horiei emango zaion denbora adostuko da eta adostasunera iristen ez bada, hurrengo saio edo bilerarako utziko da eta, bide horretan, informazio berria erantsiko da.
ADIERAZLEA	Aztertutako gaien kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	6 jarraipen bilera egin dira Aholkulariaren Panel Publikoarekin. Bilera hauetan bi aldeek adostutako gaiak landu ditugu. Helburua herritarren eta enpresaren artean elkarrekintza espazioa sortzea da.

EKINTZA	Informazio aipagarriari buruz komunikazio publikoa hobetzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Kanporantz egindako jakinarazpenak hobetzen jarraituko ditugu eta, xede horrez, gizarte sareez, jakinarazpen ofizialez edo gure web orriaz baliatuko gara, informazioa ahalik eta pertsona gehienei iristeko.
ADIERAZLEA	Petronorren web orriari argitaratutako berrien kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Petronorren web orriari argitaratu dugu, euskarri horietan egiteaz gain, 242 berri, prentsaurrekoen 14 eduki eta hiru iritzi-artikulu.

2. programa

Giza eskubideak

Estatuek eta enpresek giza eskubideen aldeko lan erkidean zeregin desberdinak dituzte. Lehenengoan eginkizuna urratzen dituztenen aldean babestea den bitartean, enpresek beren jardueratan errespetatu behar dituzte. Hala, behar bezalako arduraz jardutea ezinbestekoa da, pertsonak horiez gozatzean ez eragiteko. Gainera, izan daitezkeen eragin negatiboak erreparatu behar zaie, gertatuz gero.

Programak honen ondorengoekin zerikusia duten ekintzak multzokatzen ditu: barneko gaitasuna, barneko eta kanpoko sentsibilizazioa eta giza eskubideei erlazionatutako araudia betetzea; giza eskubideetan edozein inpaktu saihestera bideratutako ardurak izan eta ahaleginak egitea; sorterriko biztanleen edo beste edozein talde ahulen eskubideak errespetatzea; erreklamazioei arreta eskaini eta izan daitezkeen eraginak konpontzea.

Giza eskubideen eremuan interesdunen itzaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itzaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitezkeen bezala.

Hemendik aurrera, plan honek giza eskubideen programan dituen ekintzei buruzko informazio berezia eskaintzen da:

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Ekonomi, gizarte eta kultur eskubideak sustatzen dituzten erakundeekin lankidetzan jardutea.
DESKRIBAPENA	Inguruneko erakundeekin lankidetzan arituko gara, tokian eta nazioartean elkartasunaren arloan badihardute. Laguntza humanitarioaz gain, gizarte eta hezkuntzaren alderdietan esku-hartzea bultzatzen duten jardueri lehentasuna emango diegu.
ADIERAZLEA	Beste batzuekin batera finantzatutako proiektuen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Bi programa humanitario finkatu finantzatu eta lagundu ditugu Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan. Horiek Abanto-Zierbena eta Muskizko bi GKEek ezarri dituzte.

3. programa

Lan-praktikak

Praktika jarduntzat jotzen dira konpainiarako eta bere izenean egindako lanekin zerikusia duten politikak eta jarduerak, hala nola lan baldintzak, lanaldia, ordainsaria, langileak hartzea, langileak garatu eta sustatzea; langileen giza eta lan eskubideak errespetatzea, besteak beste, ez-diskriminazioa, lan bortxatua, haurren lana; langileak transferitu eta tokiz aldatzea; aniztasuna sustatu eta lanbide nahiz norberaren bizia bateratzea; lan harremana amaitzea, prestakuntza eta abileziak garatzea eta langileen osasuna.

Halaber, negoziazio kolektiboetan, gizarte elkarrizketetan eta hiru aldean arteko kontsultetan ordezkartzearekin eta partaidetzarekin zerikusia duten gaiak sartzen dira. Helburua enpleguaren inguruan gizarte arazoak lantzea da.

Lan jardunen eremuan interesdunen itzaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berriazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itzaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, plan honek lan jardunen programan dituen ekintzei buruzko informazio berezia eskaintzen da:

Lan-baldintzak

EKINTZA	Petronorren agintaritza lanpostuetan emakumeak sartzea.
DESKRIBAPENA	Erakundearen egitura eta posizio guztietan bi sexuen arteko kopurua orekatzen saiatuko gara. 2015. urtean hasi ostean, Fintzearen Kudeaketa Hobetzeko Planarekin jarraituz, langileen funtzioetan egitura malgu eta eraginkorragoaren eboluzioaren ildotik, erakundearen agintaritza lanpostuetan emakumeak sartzen jarraituko ditugu.
ADIERAZLEA	Petronorren lanbide zereginetan sustatutako emakumeen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Diskriminazio positiboaren ekintzak sendotu ditugu, emakumeak sustatzeko orduan berdintasunezko baldintzak lortzeko. Lanean hasi direnen kasuan, 10 emakume kontratatu dira, hau da, hautagaien % 40. Lan garapenera eta sustapenera bideratutako mugikortasunari dagokionez, 23 emakumek lanpostua aldatu du, hain zuzen ere, hautagaien % 35ek.

Enpresa-langileak elkarrizketa

EKINTZA	Sindikatuekin elkarrizketa jarioakorra mantentzea.
DESKRIBAPENA	Sindikatuekin elkarrizketa jarioakorra mantenduko dugu, lan gatazkak konpontzeko orduan akordioetara iristeko.
ADIERAZLEA	Lan gatazken kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Sindikatu negoziaketetan desadostasunak ebatzi ditugu solasaldiaren ondoren eta eragileentzat, baita bere ordezkarietzat ere, behar bezala suertatu da.

Aniztasuna eta bateratzea sustatzea

EKINTZA	Aukeren berdintasuna sustatzea.
DESKRIBAPENA	Garapen profesionala sustatuko dugu eta bere eremu guztietan berdintasuna bermatuko dugu, genero, kultura, erlijio edo beste alderdi bereizgarri batengatik diskriminatu gabe. Xede horrez, diskriminazio ekintza positiboak aplikatuko dira. Izan ere, praktika on bezala, eremu publikoan eta pribatuan identifikatu dira.
ADIERAZLEA	Diskriminazio positiboaren ikuspegitik bideratu den ekintza kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Berdintasun Plana onartu dugu eta bere helburu nagusia Petronorren lanean diharduten emakumeen eta gizonen artean aukera berdintasuna bermatzea da.

Langileen osasuna

EKINTZA	Ohitura osasuntsuei eta tabako, alkohol eta drogen kontsumo ohiturak kentzeari buruzko prebentziozko kontzientziazio ekintzak biziagotzea.
DESKRIBAPENA	Lan Osasunaren Sailak prebentziozko jardun pertsonalerako ohitura osasuntsuei buruzko informazioa eskainiko du. Banakako eta taldeko ekintzak egingo dira, hala nola ohiturak kentzeko terapien hitzaldiak eta kontzientziazio solasaldiak. Nahiz eta gizarteak onartu, substantzia kaltegarrien kontsumoa utzi nahi dutenentzat borondatezko partaidetza izango da.
ADIERAZLEA	Egindako saioren kopurua. Adierazitako substantzien kontsumoa utzi duten langileak.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaren kontra sentsibilizazio ekintzak egin ditugu eta Petronorreko 763 langilek parte hartu du, baita fintze lantegian industria zerbitzuei dagozkien enpresa hornitzaileetako 510 langilek ere.

4. programa

Segurtasuna

Segurtasuna industria eragiketetan faktore kritikoa da, beraz, kultura eta portaera berezia sustatzeari batuta, prebenitzea, kontrolatzea eta mantentzea enpresa jardueran oinarritzko elementuak dira.

Besteak beste, hurrengoekin zerikusia duten gaiak sartzen dira: segurtasun arriskuak prebenitu eta arintzea, larrialdiak kudeatu eta kontrolatzea; gorabeherak eta ikasitako ikasgaiak eutsi eta ikertzea; arloan araudia eta kudeaketa sistemak betetzea.

Halaber, honakoak lantzen dira: burutzaren bitartez sustatutako portaerak eta kultura segurtasunean, gai horietan prestakuntza komunikazioa eta sentsibilizazioa; gure merkataritza harremanen eremuan segurtasuna, hala nola ardura, kalifikazio prozesuak, auditoriak eta kontrolak, segurtasunean prestakuntza, segurtasunaren arloan komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak gure merkataritza harremanen taldeei begira.

Segurtasunaren eremuan interesdunen itzaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itzaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, plan honek segurtasunaren programan dituen ekintzei buruzko informazio berezia eskaintzen da. Multzokatutako gaiaren arabera, alfabetikoki sailkatu dira:

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Jokabide segurtasunari buruzko gure ikerketaren emaitzak aplikatzea.
DESKRIBAPENA	Giza eta antolaketa faktoreak hobetuko ditugu, segurtasunaren kulturari aurrera egiteko, segurtasunaren hobekuntza eta hausnarketari buruzko azterlanak egin ondoren. Ekintza planak eta hobekuntza politikak garatuko ditugu, jokabidearen segurtasun eredu berria ezartzeko.
ADIERAZLEA	Planaren aurreratze ehunekoa.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Jokabidearen segurtasunari buruzko azterlanetik abiatuta, jokabidearen segurtasunarekin zerikusia duen lan-ildoak sortu dugu eta hamar ekimen daude Petronor Barria II proiektuaren barruan. Horri esker, segurtasunaren eta ingurumenaren inguruko zereginak hobe gauza daitezke eta, bide batez, giza eta antolaketa faktoreetan oinarri duten ekintza ez seguruak murrizten dira.

Gorabeherak kudeatzea

EKINTZA	Industriaguneko alarmak kudeatzean eraginkortasuna gehiago areagotzea.
DESKRIBAPENA	Industria gorabeheraren aurrean eraginkortasuna gehiago areagotzea eta, horretarako, kontrol aretoetan kontsolen alarmak arrazionalizatzea.
ADIERAZLEA	Arrazionalizatutako alarmen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	Gure alarmen kudeaketa sistemak estandarizatu eta auditatu ahal izateko zereginak egin ditugu, hala nola prestakuntza garatzea, arrazionalizatzeko lehenengo saioa egitea eta prozesuaren desbideratzeetarako kudeaketa tresna ezartzea.

Arriskuak kudeatzea

EKINTZA	Suteen aurka eta larrialdietan prestakuntza eskaintzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Langile berriak prestatuko ditugu suteen aurkako tekniketan, prestakuntza bereziko instalazioetan eta suteen aurkako praktika eremuetan. Ispasterrekoan segurtasun langileak prestatuko ditugu suteen aurkako borrokari buruzko teknika aurreratuetan. Tepesan txandetako buruak eta nagusiak izango dira. Senegosakoa, berriz, petrokimikan larrialdiak kudeatu eta koordinatzean prestatzeko erabiliko dugu.
ADIERAZLEA	PROAren gauzatze ehunekoa larrialdiko ikastaroetan.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	PROAn edo Giza Baliabideei buruzko Planean aurrez ikusitako prestakuntza gauzatu dugu, suteen kontrako borrokari buruzko teknika aurreratuetan segurtasun langileentzako ikastaroak eta larrialdiko kudeaketa eta koordinazio ikastaroa izan ezik. Horiek 2017. urtean egingo dira.

EKINTZA	Jarduera bateratuak antolatzea, hala nola fintze eta suhiltzaileen instalazioetara bisitak edo simulakroak Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin.
DESKRIBAPENA	Arduradunekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin jarduera bateratuak egingo ditugu, bai fintze instalazioetan baita suhiltzaileen instalazioetan ere. Jardueretan honakoak egingo dira: bilerak prestakuntza teorikoarekin, instalazioetara bisitak ezagutzeko eta simulakro bateratuak.
ADIERAZLEA	Egindako ekintzen ehunekoa (bilerak, bisitak, simulakroak).
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileen instalazioak bisitatu ditugu eta Petronorrera beste bisita batzuk planifikatu ditugu. 2017. urtean egingo dira.

EKINTZA

Gure taldeko beste unitate batzuekin segurtasun jardueratan parte hartzea.

DESKRIBAPENA

Ingurunean gure enpresa taldeko beste negozio unitate batzuetako zentroekin, hala nola Santurtziko GLPrekin aldizka segurtasun bilerak antolatuko ditugu, ezagutzak partekatu eta larrialdiko egoeratan batera jarduteko.

ADIERAZLEA

Egindako bileren ehunekoa.

EGIKARITZE URTEA

2016

2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:

EGOERA

Egina

IXTE TESTUA

Larrialdiko jardueri buruzko protokoloa definitzeko bilerak eta lanak gauzatu ditugu. Helburua Santurtziko eta Petronorreko instalazioak komunikatzen dituzten ponpak gelditzea da. 2017. urtean jarraitzea aurrez ikusia dago.

EKINTZA**Suteen aurkako parkearen ekipamendua sendotzea.****DESKRIBAPENA**

10.000 gpm-ko emari handiko monitorea erosteko eta gorabeheratan parte har dezan suteen aurkako kamioia berritzeko inbertsio proposamenez gain, HYTRANS sistema, emari handiko ponpa, erosteko inbertsio proposamena egin dugu. Malgutasun handiagoz hornituko du, uraren hornidura iturri berriak (spillpond, itsas terminala) erabiltzen baititu eta ingurunea urpetzen denean eraginkortasun handiagoaz baitihardu.

ADIERAZLEA

Egindako inbertsioen ehunekoa.

EGIKARITZE URTEA

2016

2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:**EGOERA**

Egina

IXTE TESTUA

Ekipamenduak erosi ditugu, besteak beste, suteen aurkako kamioia eta HYTRANS ponpa.

5. programa

Ingurumena

Gizarteak gaur egun ingurumen erronka ugari aurre egin behar dio, arazo orokorretatik (hala nola aldaketa klimatikoa edo natur baliabideak agortzea) tokikoetara. Azkenekoek oso inpaktu bizia eragin dezakete sortzen duten ingurunean. Horien artean airea edo ura kutsatzea, hondakinak sortzea ala ekosistemak eta bioaniztasuna suntsitzea aipa daitezke.

Enpresek jarduerak horietako inpaktu batzuk sustatzen ditu. Petrolioaren sektorean alderdi horiek aipagarriak dira, instalazio handietan erazte eta industria jardueratan aritzen baita. Beraz, enpresek inpaktuak prebenitzeko, saihestezinak badira minimizatzeko eta, azkenik, zuzentzeko aukerak identifikatu behar dituzte.

Aukera horietan arriskuak eta inpaktuak prebenitu eta arintzeko honakoak sartzen dira: kontrolak, larrialdiak kudeatzea, eraginkortasun operatiboa eta baliabide hidrikoak kudeatzea, hondakinak kudeatzea, materialak erabiltzean eraginkortasuna, araudiak eta konpainiaren ingurumena kudeatzeko sistemak betetzea.

Halaber, burutza, prestakuntza, komunikazio eta sentsibilizazioaren bidez aldaketa klimatikoa arindu, ingurumena nahiz aniztasuna babestu eta kultura nahiz portaerak sustatzearekin zerikusia duten gaiak sartzen dira. Gainera, merkataritza harremanekiko arduraren egokia izango da kalifikazio prozesu, auditoria eta kontrolen bitartez, ingurumena babesteko orduan prestakuntza erabiliz eta ingurumenaren eremuan komunikazio nahiz sentsibilizazio kanpainez baliaturik, etab.

Ingurumenaren eremuan interesdunen itxaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itxaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, ingurumenaren programan sartutako ekintzei buruzko informazio berezia, multzokatutako gaiari erreparatuz alfabetoaren arabera sailkatua, ageri da:

Aldaketa klimatikoa

EKINTZA	Petronorren energia eraginkortasuna hobetzea.
DESKRIBAPENA	Petronorren energia eraginkortasuna hobetuko dugu inbertsioen bitartez eta findegiaren jardute prozedurak aldatuko ditugu. Ekintza honen proiektu nagusia FCC cracking katalitikoaren unitateko konpresoreak aldatzea da.
ADIERAZLEA	Atmosferara igorritako CO ₂ -ren tonak.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	Fluid Catalytic Crackingaren (FCC) unitateko konpresoreak ordezkatu ditugu.

EKINTZA	Berotegi efektuko gasen analisiari buruzko nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	Teknologiaren ikuspegitik enpresa garatua den neurrian eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan proaktiboa dela kontuan hartuta, berotegi efektuko gasen analisiari buruzko nazioarteko korrelazioetan parte hartuko dugu. Korrelazio horiek gure laborategiko saiakuntzetan aplikatzen dugun neurketa eta analisi metodologiaren inguruko zehaztasuna argi eta garbi uzten dute. Alderaketa beste herrialde batzuetan izen handia duten laborategiekin egiten da eta nazioartean goresiak dauden sozietateek parte hartuko dute.
ADIERAZLEA	Korrelazioan parte hartzea. DIN egiaztapen ziurtagiria lortua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Araudian oinarrituta, findegiko gasen ikatz edukia eta bero ahalmena zehazteko nazioarteko korrelazioan parte hartu dugu, Alemaniako Normalizazio Institutuak eta petrolioaren sektorea normalizatzeko Alemaniako Erakundeak antolatu ostean. 2017. urteari dagokion ziurtagiria jasotzearen zain gaude.

EKINTZA	CO₂-ren igorpenak murriztea.
DESKRIBAPENA	CO ₂ -ren igorpenak murrizten jarraituko ditugu inguruneko ekosistema hobetzeko.
ADIERAZLEA	Tona CO ₂ murriztuak.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Urtean zehar hobekuntza operatiboak egin ditugu eta, horiei esker, urteko karbono dioxidoaren igorpenak murriztu dira eta inbertsio ugari egin ditugu 2017ko etenaldi orokorrean inplementatzeko.

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Ingurumenaren ikuspegitik maila gehigarriarekin inbertsioak identifikatzea.
DESKRIBAPENA	Bukatu ditugun proiektuen analisisa gauzatuko dugu, administrazioak ingurumenaren ikuspegitik maila gehigarria duten proiektutzat jotzen dituen alderdiak identifikatzen saiatzeko (3032/2007 Foru Agindua, Ingurumeneko Foru Sailari). Administrazioaren ebaluazioak argi eta garbi uzten du egindako inbertsioekin Petronorren ingurumen konpromisoa.
ADIERAZLEA	Urtero berraztertzen diren inbertsio itxien ehunekoa.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Inbertsio proiektuen % 90 aztertu dugu, ingurumenaren ikuspegitik maila gehigarria dutenak antzemateko, hau da, garapen iraunkortasuna, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza nahiz energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa bultzatzen dituztenak dira.

Eraginkortasun operatiboa

EKINTZA	Uraren kudeaketa mapa egitea.
DESKRIBAPENA	<p>Fintze jardueretarako uraren kudeaketa mapa garatuko dugu, batetik, egoeraren diagnostikoa egin eta, bestetik, izan daitezkeen arriskuak balioztatzeko. Ahaleginak hurrengoetara bideratuko ditugu:</p> <p>1) Europar Batasunean aldaketa arautzaileetara moldatuko ditugu, erreferentziarik onenen moduan identifikatutako teknologiak aplikatuz: fintzearen Bref-a eta CWW. Zentro batzuetan muga berrietara moldatzeko hobekuntza-tresnak izan daitezke.</p> <p>2) Uraren erabilerak. Hartu eta berriz zirkulatutako ura.</p>
ADIERAZLEA	Ekoizpen Sailak identifikatutako adierazle guztiak (adibidez hartutako ura, berrerabilitakoa, erabilerak, etab.) Emisphere aplikaziora pasatzea.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Identifikatutako erabilera adierazle guztiak, adibidez hartutako ura edo berrerabilitakoa, Emisphere aplikaziora pasa ditugu. Nolanahi ere, konpainiaren ingurumen informazioaren fidagarritasuna eta koherentzia bermatzeko garatu da.

EKINTZA	Hondakinei buruzko mapa egitea.
DESKRIBAPENA	Produkzio jarduerak sortutako hondakinei buruzko mapa egingo dugu eta murrizte helburuak nahiz proiektuak definitzeko oinarritzko lerroak finkatuko dira. 2013. urtean proiektuaren lehenengo fasea burutu zen eta dagoen informazioarekin osatuko dugu. Hala, hondakinei lotutako kostuak, kopurua, arriskugarritasun ezaugarriak, azken kudeaketa eta fintze jarduerarako esangarritasuna jasoko dira.
ADIERAZLEA	Konpainiaren hondakinei buruzko mapa finkatzeko identifikatu diren alderdi guztien ekarpena denboran DSMAI izenekoari (% 100).
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Hondakinak kudeatzeari buruzko datuen % 100 ekarri dugu konpainiaren hondakinei buruzko mapa finkatzeko.

Ingurumen arriskuak eta inpaktuak kudeatzea

EKINTZA	Isurketak kontrolatzean nazioan aurrerapenak sustatzea.
DESKRIBAPENA	Nazioan laborategien arteko urteko jarduna antolatu eta babestuko dugu isurketen kontrola aztertzeko eta goi mailako laborategiek parte hartuko dute. Jardunaren independentzia bermatzeko, izen handiko kanpoko laborategia kontratatuko dugu eta korrelazio datuak kudeatzez eta tratatzez arduratuko da.
ADIERAZLEA	Laborategien arteko jarduna egitea.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Isurketen kontrolari buruzko azterlana gauzatu dugu eta nazio eremuko 15 laborategik parte hartu du. Uriker laborategia arduratu da datuak kudeatzez eta tratatzez. Aztertutako urak isurketen arloan Eusko Jaurlaritzaren araudia betetzen du eta gure laborategiko emaitzek araudia eta mugak bete dituzte.

6. programa

Jarduteko bidezko praktikak: ustelkeriaren aurkako eta etikoa

Jarduteko bidezko praktikak erakundeek beste batzuekin (hala nola bazkide, hornitzaile, kontratista, bezero, lehiakide, kide den elkarte, agentzia eta gobernuetako sailekin) transakzioak egiteko moduak aipatzen dituzte.

Harremanak bidez garatzen saiatzean, enpresek beren jardunak, besteak beste, ustelkeria prebenitzeko irizpideetara moldatu behar dituzte eta horren inguruko politikak eta praktikak inplementatuko dituzte. Ustelkeriaren kontrako politikak inplementatzean buruek konpromisoa, motibazioa eta ikuskaritza azaldu beharko dute; langileak eroskeria eta ustelkeria errotik ateratzeko prestatu beharko dira eta arloan aurrerapausoak emateagatik pizgarriak eskuratuko dira; langileei, bezeroei eta hornitzaileei jakinaraziko zaie erakundearen politikak urratzen direnean azaldu beharko dutela; zigor legearekiko urradurei buruz berri emango zaie agintariei eta erakundearekin jardunean dihardutenei antzeko praktikak erabil ditzaten ohartaraziko zaie.

Eremu honetan interesdunen itzaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berriazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itzaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, fitxa moduan, plan honek “jarduteko bidezko praktikak: ustelkeriaren aurkakoa eta etikoa” programan dituen ekintzei buruzko informazio berezia eskaintzen da, alfabetikoki sailkatua:

Merkataritza harremanak

EKINTZA	Iraunkortasunerako zereginei jarraipena egitea eta hornitzaileen nahiz kontratisten erantzukizun soziala sustatzea.
DESKRIBAPENA	Homologazio eta jarraipen auditoriak egingo dizkiegu hornitzaileei eta Korporazioaren Erantzukizun Zibilaren printzipioekin zerikusia duten alderdiak berraztertuko ditugu. Harremanaren eremuan edozein arloren barruan Petronorren eskeak betetzen ez dituzten enpresei zigortuko diegu.
ADIERAZLEA	KEsaren balioztapenarekin kalifikazioen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Gurekin lanean ari diren enpresa guztiei, CTAIMA enpresaren bidez, Etika eta Jokabideari buruzko Kodea eskuratu diegu eta homologazio prozesuetan Korporazioaren Erantzukizun Zibilaren irizpideek auditoria pasa dute. Era berean, ebaluazio prozesuetan neurriak betetzen direla kontrolatu da.

7. programa

Jarduteko bidezko praktikak: balio kaltea

Jarduteko bidezko praktikak erakundeek beste batzuekin (hala nola bazkide, hornitzaile, kontratista, bezero, lehiakide, kide den elkarte, agentzia eta gobernuetako sailekin) transakzioak egiteko moduak aipatzen dituzte. Beste erakunde batzuekin transakzioetan erakundearen jokabide etikoaren berezkoak dira.

Enpresak harreman horiek bidez garatzea saiatu behar du eta bere erosketa, banaketa eta kontratazio politiketan irizpide etikoak, sozialak eta ingurumenaren ingurukoak sartuko ditu. Horrez gain, beste erakunde batzuk animatuko ditu, antzeko politikak onar ditzaten eta harremanak dituen erakundeak behar bezala jarraituko ditu. Gizartearen ikuspegitik helburu arduratsuak lor ditzaten, enpresa txiki eta ertainei laguntza eskaintzeko aukera kontuan hartuko du. Azkenik, erosketa praktikak egokiak, bidezko prezioak, emate epe aproposak eta kontratu egonkorak landuko ditu.

Eremu honetan konpainiaren interesdunen itzaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berriazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itzaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, plan honek jarduteko bidezko praktikak: balio katea programan dituen ekintzei buruzko informazio berezia eskaintzen da:

Hornitzaileak eta kontratistak

EKINTZA	Beren onurarako gure kontratistei informazioa eskuratzea.
DESKRIBAPENA	Enpresa kontratistei zuzenean berri emango diegu findegian urtean zehar garatutako lan nagusiei buruz, etenaldiak eta berri beharreko kontratu garrantzitsuak barne, beren baliabideak kalkulatu ditzaten. Etenaldien kasuan, aurrez ikusitako lanen plangintza eta mantentzeko ekipoen epemugak jakinaraziko ditugu.
ADIERAZLEA	Planaren betetze maila.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Gerentzien arteko urteko bileran hornitzaileei jakinarazi zaie 2016ko etenaldien plangintza, 2017ko lehenengo hiruhilekora atzeratutakoa.

8. programa

Partaidetza aktiboa eta erkidegoaren garapena

Erkidegoan partaidetza aktiboa dauden interesdunak identifikatzetik eta erakundearen jarduerak sor ditzaketen inaktuak kudeatu eta minimizatzeko horiekin nahastetik abiatzen da.

Era berean, partaidetza aktiboarekin eta erkidegoa garatzearekin enpresak gizarte ondasun bihurtu nahi du, nahiz eta prozesu horretan, sarritan, erkidegoaren oso interes desberdinak agertu, gainera, batzuetan kontrajarriak. Ildo horri eutsiz, horiek enpresak guztira hartuta balioetsi behar ditu. Helburu erkide bezala erkidegoaren ongizatea sustatzeko erantzukizun partekatua behar da. Enpresak erkidegoan ordezkari duden taldeei kontsultatu beharko lizkieke gizarte inbertsioko lehentasunak eta arreta berezia jarri beharko luke talde sentiberetan.

Erakundeak tokiko garapenean lagun dezake enplegua sortuz, tokiko erakundeak eta hornitzaileen gaitasunak eta aukerak sendotuz nahiz kultura, osasun, gizarte eta ingurumen programak garatuz.

Partaidetza aktiboaren eta erkidegoa garatzearen eremuan interesdunen itxaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa sistema du eta funtzionamendua korporazioaren web orrian kontsulta daiteke: **repsol.com**.

Modu osagarrian, Iraunkortasun Plan honetan hurrengo ekintzak erantsi dira, itxaropen nagusiekiko erantzuna sendotzeko, ondoren ikus daitekeen bezala.

Hemendik aurrera, planari dagokion partaidetza aktibo eta erkidegoa garatzearen programan sartutako ekintzei buruzko informazio berezia, multzokatutako gaiari erreparatuz alfabetoaren arabera sailkatua, ageri da:

Tokiko edukia

EKINTZA	Erkidegoaren onurarako boluntarioak sustatu eta babestea.
DESKRIBAPENA	Boluntarioen erakundeei lagunduko diegu tokiko eremuan eta, xede horrez, eskuragarritasun ekonomiko eta material handiagoa izango dute, inguruneko tokiko erkidegoek baliabide gehiago izan ditzaten. Boluntarioen taldeek babes zibilarekin edo kultur nahiz gizarte boluntarioekin zerikusia izan dezakete, besteak beste.
ADIERAZLEA	Tokiko boluntarioekin lankidetzak kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Boluntarioen ekimenei (kultura, elkartasuna, kirola eta gizarte) ekipamendu eta ekonomia ekarpenak egin dizkiegu. Erakunde hartzaile nagusiak, besteak beste, honakoak izan dira: Muskizko Babes Zibila, Mello Saria lasterketa solidarioa, Alkamar, Gurutze Gorria eta Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC).

EKINTZA	Beste produkzio sektore batzuei, nagusiki, lehen mailakoei laguntzea.
DESKRIBAPENA	Lehen sektorean autoenplegurako enpresa ekimenak sustatuko ditugu eta landa kalifikazioan Petronorren beraren lursailak egituratuko dira. Herri erakundeekin batera jarduera plana garatuko dugu, lursail egokia eskura izateko. Lursailak Petronorren jabetzakoak dira eta adostutako denbora berraztergarrian erabiltzeko lagako dira.
ADIERAZLEA	Izapidetzeko hirigintza dokumentazioa aurkeztea.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	Siderurgia Integralaren Fundazioarekin lagapen agiria legeztatuko dugu, 3,6 hektarea erabiltzeko. Helburua gizarte ekonomiako enpresa sortzea da. Gutxi gorabehera 25 lanpostu berri sortuko dira, lehen sektoreari eta horrekin zerikusia duten jarduerari lotuta.

EKINTZA	Tokian enplegua mantentzen eta enplegagarritasuna areagotzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	<p>Tokiko hornitzaileen erakarpen planarekin konpromisoak mantenduko ditugu, inguruneke biztanleen artean zuzeneko eta zeharkako enplegu aukerak sortzeko. Somorrostroko Prestakuntza Eskolarekin lankidetzan arituko gara eta praktiketarako ekipoak eskainiko dizkiegu. Gainera, irakaskuntza programari buruzko orientabidea emango dugu eta kontratisten langileen artean prestakuntza sustatu ere bai.</p> <p>Programatutako etenaldietan, sortutako enpleguaren zati bat ingurune hurbileko langileentzat izatearen aldeko apustua egingo dugu.</p>
ADIERAZLEA	Muskizko, Abanto-Zierbena eta Zierbenako udalerrietako langile kopurua (etenaldietan eta kontratistaren langileen artean).
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	Hainbat ekimen burutu dugu, hala nola, plantako ekipoak Somorrostroko Prestakuntza Zentroak erabil ditzan lagatzea, Petronorrek kontratistei eska dakizkien prestakuntza ikastaroekin zerrenda egitea eta langabetuen curriculum vitaeak kudeatzeko sistema kontratatzea.

EKINTZA	Petronorreko hornitzaileentzat <i>Confirming</i> zerbitzua zehaztea.
DESKRIBAPENA	Petronorren hornitzaileentzat <i>Confirming</i> zerbitzua ezarriko dugu eta baldintza erakargarrietan beren fakturak lehenago kobratzea bultzatu ere bai.
ADIERAZLEA	Tokiko hornitzaileen aldetik <i>Confirming</i> aren onartze maila.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Orokorrean eta hileko erregularitasunez <i>Confirming</i> sistema zehaztu dugu 2016. urtean eta findegiaren inguruko hornitzaileak errazago finantza daitezke.

EKINTZA	Tokiko enplegua sustatzeko erakunderen batekin (enplegurako zentro berezia edo ikastetxea) langabetuen curriculumak kudeatzea.
DESKRIBAPENA	Zonako langabetuekin datu basea sortuko dugu eta industria zerbitzuetako enpresa hornitzaileei eskuratuko diegu. Informazio horrekin enpleguaren enpresa eskaintza eta langabetuen eskea bateratu nahi da.
ADIERAZLEA	Kontratatuak pertsonen kopurua. Kontratatuak pertsonen lanaldi kopurua. EGIKARITZE.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	Urteko azkeneko hiruhilekoan zerbitzu hau lizitazioan jarri dugu eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroa izan da adjudikazioduna. 2017. urteko lehenengo hilabeteetan URF fuel-olioa murrizteko unitatearen etenaldiari begira, curriculum vitaeak kudeatuko dituen plataforma sortu da.

EKINTZA	Inguruko udalerrietako ikasleei bekak eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Tokiko ikasleei bekak ematen jarraituko dizkiegu, inguruneke lanbide heziketako ikastetxeetan eta fintzearen sektorearekin lotuak dauden lanbide familietan garatzen badituzte beren ikasketak.
ADIERAZLEA	Ikasle bekadunen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	42 ikasleri eman diogu beka inguruko ondorengo udalerrietan: Abanto-Zierbena, Muskiz eta Zierbenan. Horiek lanbide heziketako goi zikloetan egin dituzte beren ikasketak.

Gizarte inbertsioa

EKINTZA	Findegiaren ingurunean enpresa proiektu berriak finantzatzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	SEED CAPITALen kapital gehikuntzan parte hartuko dugu. Hori foru sozietate publikoa da bere kapitalean aldi batean parte hartuz enpresak sustatu eta garatzeko eta Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikia dago.
ADIERAZLEA	Kapital gehikuntza.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	SEED CAPITAL enpresaren kapital gehikuntzan parte hartu dugu, findegiaren ingurunean enpresa proiektu berriak finantzatzen laguntzeko.

EKINTZA	Langabetuei enpresak sortzen laguntzeko ekimenetan lankidetzan jardutea.
DESKRIBAPENA	Erakunderen batekin (enplegurako zentro berezia) lankidetzan jardungo dugu, enplegu eta autoenplegurako ekimenak bultzatzen. Petronorren industria sektorera bideratutako zerbitzuak eskaintzen dituztenei erreparatuko diegu. Urbegi eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin jarri gara harremanetan.
ADIERAZLEA	Petronorrek lankidetzan diharduen ekimenen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	URBEGI enpresarekin eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin jarri gara harremanetan eta Petronorri interesa dakizkiokeen zerbitzuak aztertu dira jardunaldi batean. Helburua langabetu ekintzaileak sortutako ideia batera bideratzea da. Aukeren eta ideien zerrenda burutu dugu, industriagunetik kanpo laguntza askoko zerbitzu modura.

EKINTZA	Somorrostroko prestakuntza-zentroarekin mantentze-lanetarako langileen prestakuntza duala koordinatzea.
DESKRIBAPENA	Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin ikasleen prestakuntza-jarduera praktikoak koordinatuko ditugu. Zehazki, Petronorren industria sektoreak berezkoak dituen lanbide-familien prestakuntza dualaren ereduarena.
ADIERAZLEA	Petronorren prestakuntza duala egin duen ikasleen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
EKINTZA 2016/12/31N ITXI DA	
EGOERA	Jardunean
IXTE TESTUA	<p>Lehenengo sustapena abiarazi dugu eta 5 enpresak (Masa, Tamoin, Miesa, Bahía Bizkaia eta Petronor), 4 ikastetxek (CFS, Nicolás Larburu, Elorrieta eta Repélega) eta 18 ikaslek parte hartu du. Petronorren 4 ikaslek egingo dituzte praktikak.</p> <p>2017. urtean programaren hirugarren espezializazio ikastaroan lanean jarraituko da, eskusiboki espezializazio honek eskatzen duen industria sektorean funtsean ezagutza praktikoak lortzeko.</p>

EKINTZA	Inguruko udalerrietan tokiko gizarte-inbertsioari buruzko programak mantentzea.
DESKRIBAPENA	Erakunde-eremuan izena duten tokiko taldeek sustatutako jarduerak finantzatuko ditugu, nagusiki, kirolaren, kulturaren, gizarte nahiz hezkuntzaren, gizarte eta erkidegoaren, olgetaren, elkartasunaren, GKEen, fundazioen eta abarren eremuetan.
ADIERAZLEA	Inguruko udalerrietan gizarte-inbertsioari dagokion programa-kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Zierbena, Muskiz eta Abanto-Zierbenako udalerrietan elkarte sareak sustatutako jarduerak finantzatuko ditugu.

EKINTZA	Unibertsitate eta Lanbide Heziketa Zentroei bisitak eta mintegiak eskaintzea.
DESKRIBAPENA	<p>Unibertsitate eta lanbide heziketa zentroetako lanbide-informazioaren edo prestakuntzaren eskeari erreparatzen diogu. Bi lankidetzajarduera zehaztuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lanbide heziketako zentroei eta unibertsitateei Petronorren instalazioetara bisitak egiteko erraztasunak emango dizkiegu. - Erakunde horietako ikasleentzat prestakuntza-profil berdinekin prestakuntza- eta praktika-hitzarmenak egingo ditugu. Laborategia sail egokia da, besteak beste, halako jardueretan aritzeko.
ADIERAZLEA	Arreta eskainitako eskaeren ehunekoa.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Giza baliabideek planifikatutako bisita guztiei arreta eskaini diegu eta 4 eskaera izan ditugu enpresan prestatzeko.

EKINTZA	Enpleguaren arloan talde ahulei arreta berezia eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Enplegurako, hornidurarako eta industria zerbitzu osagarrietarako zentro bereziekin urteko kontratazio helburuak zehaztuko ditugu. Modu berean jarduten duten enpresak edo gaitasun desberdinak dituzten pertsonak kontratatzen dituztenak positiboki balioetsiko ditugu.
ADIERAZLEA	Enplegu-zentro bereziekin zerbitzuetan eta materialetan gastatutakoa.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Gure zerbitzu gehienak enplegu zentro bereziekin kontratatu ditugu eta Minusbaliatuak Gizarterako Legearen (LISMI) eskakizunak aurki gainditu ditugu.

Berrikuntza eta I+Ga

EKINTZA	Teknologia- eta unibertsitate-zentroekin lankidetzaguneak zehaztea, ezagutza zientifikoa industrian aplikatzeko.
DESKRIBAPENA	Berrikuntza Sailak teknologia zentro publiko eta pribatuekin lankidetzalanak zehaztuko ditu. Unibertsitateko zientzia-erkidegoak industria-erronken analisisian parte hartuko du, aurrerapen teknologikoak bere produkzio-prozesuetan aplikatzeko.
ADIERAZLEA	Aztertutako gaien kopurua. Ezarritako garapenen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Hainbat teknologia programa garatu dugu Zientzia eta Teknologiaren Euskadiko Sareari dagozkion erakundeekin, bestea beste, URF fuel-olioa murrizteko unitateetan enclosure izenekoak zigilatze prototipoak garatu eta eraikitzea.

Partaidetza eta elkarrizketa

EKINTZA	Ingurunetik jaso ostean, ingurumen-iradokizunak eta -kexak kontuan hartzea.
DESKRIBAPENA	Kanpoaldeko kexa eta dei guztiak erantzuten ditugu biztanleek antzematen dituzten egoerei buruz, halako ekintza motarako konpāniak zehaztutako protokoloaren arabera informazio gehiago behar dela uste bada. Jatorria identifikatzen saiatuko gara, kexaren oinarria ez errepikatzeko.
ADIERAZLEA	Arreta eskainitako eskaeren ehunekoak.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Ingurumenaren arloko iradokizun eta kexa guztiak erantzun ditugu, gure ingurunetik jaso ostean.

EKINTZA	Iraunkortasun Plan hau jakinaraztea.
DESKRIBAPENA	Petronorren 2016ko Iraunkortasun Planean onartutako ekintzekin barneko eta kanpoko komunikazio-plana gauzatuko dugu, bi noranzkoetan, konpainiako interesdunentzat.
ADIERAZLEA	Egindako jakinarazpen-ekintzen kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	2016ko Iraunkortasun Plana erakunde desberdinei hedatu diegu eta Petronorren web orrian argitaratu dugu.

EKINTZA	Inguruneko biztanleen kezka ebaluatzea.
DESKRIBAPENA	Eragiketen inguruan dauden biztanleen segurtasunari, gizarteari eta lanari kezka ebaluatuko ditugu. Panel Publiko Aholkulariek arlo honetan proposatzen dizkiguten ekintzak ezarriko ditugu. Gatazkak berriekin bideratzeko behar den informazioa emango dugu eta errazago ulertzeko teknizismoak saihesten saiatuko gara.
ADIERAZLEA	Panel Publiko Aholkularien saio-kopurua.
EGIKARITZE URTEA	2016
2016/12/31N EKINTZAREN IXTE MAILA:	
EGOERA	Egina
IXTE TESTUA	Panel Publiko Aholkulariaren panelzaleek azaldutako eskaera eta kezkei arreta eskaini diegu. Helburua herritarren eta enpresaren artean elkarrekintza gunea sortzea da. Ildo horretatik, enplegarritasuna eta prestakuntza hobetzeko jarduerak gauzatu ditugu eta administrazioekin nahiz prestakuntza zentroekin lankidetzan aritu gara.

Plana eguneratzeko prozesua

Iraunkortasun Plan hau dokumentu dinamikoa da.

Urtero Planari dagozkion ekintzen lortze-maila jakinaraziko dugu eta, horretarako, itxiera-txostena argitaratuko dugu.

Bestalde, gure alde interesdunei kezkatzen dizkieten gaiak edo itxaropenak aldakorrak direnez eta urtean zehar izandako gertaeren arabekoak direnez, Plana urtero ekintza berriekin edo indarrekoak berriz formulatuz eguneratuko da, egoera berriari moldatzeko.

Ondoz ondoko planaren eguneratzeek betetako ekintzen aztarna utziko dute eta orotara gure konpainiak garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena da.

Ekintzen aurkibidea

Legezko oharra	3
Korporazioaren erantzukizunaren ikuspegi berria eta Plana prestatzea	4
Interesdunen itzaropenak eta Planari dagozkion ekintzak	7
1. programa: gobernamendua	7
Aordioetara iristeko elkarrizketa prozesuak adostea.	8
Informazio aipagarrien komunikazio publikoa hobetzen jarraitzea.	9
2. programa: giza eskubideak	10
Kultura eta kudeaketa	11
Ekonomi, gizarte eta kultur eskubideak sustatzen dituzten erakundeekin lankidetzan jardutea.	11
3. programa: lan-praktikak	12
Lan baldintzak	13
Petronorren agintaritza lanpostuetan emakumeak sartzea.	13
Enpresa-langileak elkarrizketa	14
Sindikatuarekin elkarrizketa jaria korra mantentzea.	14
Aniztasuna eta bateratzea sustatzea	15
Aukera berdintasuna sustatzea.	15
Langileen osasuna	16
Ohitura osasuntsuei eta tabako, alkohol eta drogen kontsumo ohiturak kentzeari buruzko prebentziozko kontzientziazio ekintzak biziagotzea.	16

4. programa: segurtasuna	17
Kultura eta kudeaketa	18
Jokabide segurtasunari buruzko gure ikerketaren emaitzak aplikatzea.	18
Gorabeherak kudeatzea	19
Industriaguneko alarmak kudeatzean eraginkortasuna gehiago areagotzea.	19
Arriskua kudeatzea	20
Suteen kontrako borrokan eta larrialdietan prestakuntza eskaintzen jarraitzea.	20
Jarduera bateratuak antolatzea, besteak beste, fintze eta suhiltzaileen instalazioetara bisitak edo simulakroak Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileekin.	21
Gure taldeko beste unitate batzuekin segurtasun jardueretan parte hartzea.	22
Suteen aurkako parkearen ekipamendua sendotzea.	23
5. programa: ingurumena	24
Aldaketa klimatikoa	25
Petronorren energia eraginkortasuna hobetzea.	25
Berotegi efektuko gasen analisiari buruzko nazioarteko erlazioetan parte hartzea.	26
CO ₂ -ren igorpenak murriztea.	27
Kultura eta kudeaketa	28
Ingurumenaren ikuspegitik gehitzen duten inbertsioak identifikatzea.	28
Jardunaren eraginkortasuna	29
Ura kudeatzeari buruzko mapa egitea.	29

Hondakinei buruzko mapa egitea.	30
Ingurumen arriskuak eta inpaktuak kudeatzea	31
Isurketak kontrolatzean nazioan aurrerapenak sustatzea.	31
6. programa: Jarduteko bidezko praktikak: ustelkeriaren aurkakoa eta etikoa	32
Merkataritza harremanak	33
Iraunkortasunerako zereginei jarraipena egitea eta hornitzaileen nahiz kontratisten erantzukizun soziala sustatzea.	33
7. programa: Jarduteko bidezko praktikak: balio kaltea	34
Hornitzaileak eta kontratistak	35
Beren onurarako gure kontratistei informazioa eskuratzea.	35
8. programa: Partaidetza aktiboa eta erkidegoaren garapena	36
Tokiko edukia	37
Erkidegoaren onurarako boluntarioak sustatu eta babestea.	37
Beste produkzio sektore batzuei, nagusiki, lehen mailakoei laguntzea.	38
Tokian enplegua mantentzen eta enplegarritasuna areagotzen laguntzea.	39
Petronorreko hornitzaileentzat <i>Confirming</i> zerbitzua zehaztea.	40
Tokiko enplegua sustatzeko erakunderen batekin (enplegurako zentro berezia edo ikastetxea) langabetuen curriculumak kudeatzea.	41
Inguruko udalerrietako ikasleei beka eskaintzea.	42

Gizarte inbertsioa	43
Findegiaaren ingurunean enpresa proiektu berriak finantzatzen laguntzea.	43
Langabetuei enpresak sortzen laguntzeko ekimenetan lankidetzan jardutea.	44
Somorrostroko prestakuntza-zentroarekin mantentze-lanetarako langileen prestakuntza duala koordinatzea.	45
Inguruko udalerrietan tokiko gizarte-inbertsioari buruzko programak mantentzea.	46
Unibertsitate eta Lanbide Heziketako Zentroei bisitak eta mintegiak eskaintzea.	47
Enpleguaren arloan talde ahulei arreta berezia eskaintzea.	48
Berrikuntza eta I+Ga	49
Teknologia- eta unibertsitate-zentroekin lankidetzak-guneak zehaztea, ezagutza zientifikoa industrian aplikatzeko.	49
Partaidetza eta elkarrizketa	50
Ingurunetik jaso ostean, ingurumen-iradokizunak eta -kexak kontuan hartzea.	50
Iraunkortasun Plan hau jakinaraztea.	51
Inguruneko biztanleen kezkek ebaluatzea.	52
Plana eguneratzeko prozesua	53
Ekintzen aurkibidea	54

www.petronor.eu

